

EUSKARA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Ekintza Landa Artxanko David Dominguez Gonzalo	Maila	DBH2	Ikasturtea	2020-2021
-----------	---	-------	------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

DBHko lehenbiziko zikloari amaiera ematen dion kurtsoa dugu. Euskal Hizkuntza eta Literatura derrigorrezkoa da maila honetan eta asteen hiru saio emanen dira.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Prezentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1.unitatea	2.unitatea	3.unitatea
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.		X	
3) Gaitasun digitala.	X	X	X
4) Ikasten ikastea	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzazailtza.	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

1. IKASTUNITEA, EKI 1: LITERATARIA.

PROIEKTUA: Ikasleek irakurritako liburuen iruzkinak eta balorazioak idatzi eta utziko dituzte aukera ematen dieten lekuetan (web orriak, liburutegiak, argitaletxeak...).

Testu tipoa: argudio sekuentzia (iritzia eta arrazoiak), narrazio sekuentzia (pertsonaiak, arazoa eta ekintza: laburpena, hipotesien formulazioa).

Edukiak

- Modalizatzaileak: iritzia, zalantza, ziurtasun eza eta aditz moduak.
- Adjektibo baloratiboak
- Testu antolatzaileak
- Leku antolazaileak
- Lokailuak
- Perpaus motak: kausa-ondoriozkoak eta konpletibak.

2. IKASTUNITATEA, EKI 2: GAZTE GARA GAZTE...

PROIEKTUA: Nerabeei eta gazteei buruzko iritzi baikorra emango duten ahozko grabazioak sortuko dituzte informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatuz.

Testu motak eta tipoak: Ikus-entzunezkoak (kartela, *spota*, film laburra, bideoklipa...), argudiozkoak.

Edukiak

- Kode motak
- Modalizatzaileak
- Kortesia-formulak
- Kohesiorako baliabideak (antolatzaileak, puntuazio markak, komunztadura...)
- Perpaus motak: kausa-ondoriozkoak, aurkaritzazkoak, adibideak ematekoak
- Aditz izenak: -tzea/-tzeko
- Kategoria gramatikalak: pertsona izenordainak
- Ikus-entzunezkoen eremuko hiztegia
- Agintera sinplea: talde lana egin ondoren, jarraibide testu bat eginez.

3. IKASTUNITATEA, EKI 3: JALGI HADI PLAZARA

PROIEKTUA: Elkarrizketa bat egingo dute ikasleek, eta bertako informazioarekin erreportaje bat. Ondoren, horren azalpena egin beharko dute. Proiektu hau ikastetxeko Berrikuntza Proiektu honekin erlazionatua dago: *munduko hizkuntza gutxituak*

Testu tipoak: Elkarrizketa, deskribapena, azalpena.

Edukiak

- Interakziorako estrategiak: agurtzeko, aurkezteko, hasiera emateko, azalpenak eskatzeko...
- Kohesiorako baliabideak: antolatzaileak, elipsiak eta anaforak.
- Perpausak: kausa-ondoriozkoak, konpletiboak, zeharkakoak
- Kategoria gramatikalak: izena, adjektiboa, artikulua, pertsona-izenordainak eta denbora-adberbioak
- Soziolinguistikaren eremuko lexikoa

Ebaluazio guztietan, ondorengo alderdi hauek landuko dira:

- Asmo komunikatiboa: ebaluazio bakoitzean egin beharreko proiektuarekin erlazionatua
- Komunikazio egoerak: ebaluazio bakoitzean egin beharreko proiektuarekin erlazionatua
- Deklinabidea
- Aditz trinkoak zein perifrastikoak
- Baldintza

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae berdin bidean** programa integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude. Kurtso honetan bi jarduera hauek landuko dira:

- 1. ebaluazioan: *“Estereotipoak, eta zenbat kostatzen zaidan horiek alde batera uztea”* jarduera egingen da. Jarduera hau *Ezekiel* liburuarekin erlazionatua dago. Skolae programaren barruan, jarduera honekin ondorengo esparru hau lantzen da: *Berdintasun-ezarekiko gaitasun kritikoa eta aldatetarekiko konpromisoa*
- 2. ebaluazioan: *“Harkaitza”* jarduera egingen da. Jarduera hau ebaluazio honetan egin beharko duten talde lanarekin erlazionatua dago. Skolae programaren barruan, jarduera honekin ondorengo esparru hau lantzen da: *Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala.*

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

Mintegiko programazio didaktikoan eta honako lotura honetan ikusgai: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak

33	1. ikasunitatea	33	2. ikasunitatea	33	3. ikasunitatea
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK					
<p>Euskara eta literatura – DBH 2, Eki Proiektua – Ikaslekar testuliburua eta mailako irakasleek prestatutako material osagarria (fotokopien bidez). Ikasturtean zehar 3 proiektu garatuko dituzte jarduera praktiko eta teorikoak uztartuz. Ikaskuntza kooperatiboa eta baterako heziketa izango ditugu kurtso osoko ardatz.</p> <p>Ikasgaia IK/KI metodologiaren bidez landuko da. Metodologia hau jarraituz, ikasleak launaka taldekatuko dira, bakoitzak bere rola izanik.</p>					
EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA					
<p>Mintegiko programazio didaktikoan eta honako lotura honetan ikusgai: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/</p>					
KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK					
<p>Klasean nahiz klasetik kanpo eginen diren lan guztiak hartuko dira kontuan ebaluatzeko garaian. Azken emaitzak ondorengo atalon arabera proportzio horretan emanen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lanak (etxeko lana, klaseko lana) %10 • Herritaratzeko eta gizarteratzeko gaitasunak, Ekimenerako eta ekintzaile izateko gaitasuna, Kontzientzia eta kultura adierazpenak %15 • Proiektuak + azterketak %75 <p>Ikasturte osoko emaitzak proportzio ezberdinetan banatuko dira, hiruhileko bakoitzean landuko den proiektuaren zailtasunaren arabera. Hona hemen banaketa:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ebaluazioa: %30 2. Ebaluazioa: %35 3. Ebaluazioa: %35 					
ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK					
<p>Proiektuak eta lanak zuzentzeko irizpideak hurrengo hauek ditugu: proiektuaren berezitasuna, koherentzia, kohesioa, aurkezpena, aberastasuna, informazioaren tratamendua, euskara maila eta originaltasuna. Proiektuak eta lanak epeaz kanpo ematen badira, gehienezko nota 5 izanen da.</p> <p>Borobiltzea: Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. - Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da. <p>Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.</p>					
ERREKUPERAZIO SISTEMA					
<p>Ikasleak ebaluazioa gaindituko ez balu, berreskurapen azterketa egingo luke horretarako aurreikusten diren egunetan.</p> <p>Hiru ebaluazioen ehunekoak aplikatu ondoren, 5 baino gutxiago aterako duenak nahikotasuna egin beharko du. Proba horretan 5ekoa lortuz gero, kurtsoa gaindituzat joko dugu. Etengabeko ebaluazioa galduz gero ere, ikasleek nahikotasun proba eginen dute, legeak arautzen dituen estandarren arabera prestatuko dena. Ohiko deialdian gainditu ezean, ekainaren erdialdean ez-ohiko azterketa egingo dute. Estandarren arabera prestatuko da eta notaren %100a izanen da.</p>					

Aurreko ikasturteko Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia gainditu gabe izanez gero, irailean beste proba idatzi bat egiteko aukera izanen dute. Horrela gainditu ezean, laugarren mailako lehenbiziko eta bigarren ebaluazioetan gutxienez 4koa lortu beharko da gainditzat emateko. Hala ez balitz, apirilean beste proba idatzia gainditu beharko da. Berreskurapen nahiz nahikotasuneko azterketetan gehienez ere 5koa lortu ahal izango da.

KANPOKO EBALUAZIOA: FROGA DIAGNOSTIKOA

Eskolaz kanpoko proben emaitzak jaso eta haien analisia egin ondoren bertan atzemandako alderdi sendoak mantendu eta ahuleziak zuzentzeko helburuarekin honakoak landuko dira:

HELBURUAK	JARDUERAK
<p>Proiketuetan ulermena zein testuaren alderdi formalak egoki lantzea.</p> <p>Testuen hainbat alderdiren analisi sistematikoa egitea.</p> <p>Inferentziak egitea, ondorioak ateratzea eta asmoa identifikatzea.</p>	<p>Plan berezia: Lehenengo ebaluazioan 7 saio eskainiko dizkiogu irakurriaren ulermenari eta 3 testu aztertuko dituzte. Bigarrean, berriz, 9 saiotan landuko dugu, 9 testu landuko ditugularik. Azkenik, hirugarrenean beste 7 saiotan arituko gara, 5 testu lantzeko beharko ditugunak.</p> <p>Beste ikasturteetako proba diagnostikoen azterketak eginez, honako alderdi hauei errepatuko diegu:</p> <p>inferentziak egin, ondorioak atera, baliabide tipografikoen erabilera, testu tipoa antzeman, asmoa identifikatu, grafikoak interpretatu, konnotazioa landu, igorlea eta hartzailea identifikatu, antolatzaileak, hiztegia, galde moduak, poesiaren alderdi teknikoaren analisia (baliabide literarioak, hartzailea, igorlea, egitura...) eta gertakarien ordena kronologikoa.</p>

OHARRA: Ikasturtean zehar irizpide pedagogikoen arabera zerbait alda liteke beharrezko balitz.